


VILLA MAITENA
D MAILA**JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 231, 233, 235**

Manuel Domínguez Barros, 1920

Deskribapena

Hirian zenbait obra modernista egin ondoren, Domínguez Barrosek beste estilo batez diseinatu zuen etxe hau, malda handiko estalkiz hornitutako neotudor bilbaduraren eraginetik hurbilago. Hortxe ikusten dugu eraikinaren joko nagusia, teilatu, txapitula eta tximinia mugimenduan alegia. Teilatu-hegalen azpian bilbadurak marrazten dira zurezko jabaloiak abiatzen diren lekuan, eta teilazko isurkiak dauzkaten bi txapitula puntazorrotz identifika daitezke ekialdeko fatxadara begira, eta isurki handiagoko goihabeko txapitula bat, kopete-erdi gisako errematea duen horma pikoarekin batera. Lehenbiziko bi solairuetan, hots, teilatupekoaren aurretikoetan, bay window bat ateratzen da bi mailatan; ondoren, solairuen erremate bihurtu da hori. Beste xehetasun pintoresko batzuk nabarmentzen dira, kantoi alaka batean dagoen hiruki formako balkoi txikia esaterako.

D mailako babes erregimen espezifikoak

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jatorrizko proiektuari erantsitako atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: erliebe emokatu guztiak. Teilatu-hegalak bere habe eta zuburuekin.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.